

LIV. ARAUEN TESTU OSOA

143

-ERRI(A) OSAGAIA GAURKO TOPONIMIAN

SARRERA

Gauza jakina da Euskal Herriko zenbait eskualde eta ibarren izenetan, aurreko izen zehazle bati erantsirik, *-erri* osagaia agertzen zaigula. Azken aldi honetan, ordea, zalantza piztu da, izen horiek mugatzailea eskatzen ote duten ez dagoelako beti nahi bezain argi. Horregatik, euskal tradizioan orain arte erabili denean eta toponimia nagusiaren alorrean egin diren bilketetan, nolako erabilerak aurkitzen ditugun aztertu nahi izan dugu. Era honetan, nola jokatu behar den zehaztu nahiko genuke, kasurik ezagunetan behinik behin, ez dadin zalantzarik egon. Halaber, ahal den heinean, etorkizunean kausi nahiz sor litezkeen leku-izenekin ere, jarraitu beharreko biderik egokiena zein ote den adierazi nahiko genuke. Euskal Herriko Erkidego politiko batzuetako lurralde-antolamenduko zerbitzuek, udalaz goragoko esparruak zehaztu eta identifikatu behar izaten dituzte sarritan. Industrializazioak ekarritako zenbait hiriguneren garrantzi berriak, bizimodu tradizionalen aldaketa sakonak, komunikabideen modernizazioak eta herri-zerbitzuen eskaintzaren arrazionalizazioak, euskal herrialdeak eskualdetan zatikatzeko saio ugariak ekarri dituzte. Eskualde, barruti nahiz edozein helburu zehatzetarako esparru hauen izenak, ordea, ez dira beti era egokian ez emaitza arrakastatsuzak berreskuratu, asmatu nahiz egokitu. Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, euskarak *-erri* osagaia duten leku-izenak osatzeko orain arte eskaini dituen bideak aztertu nahi izan ditu, jarraian ematen den txostenaren bidez, etorkizunean berreskuratu nahiz osa litezkeen toponimoetan ere, bide egoki eta zuzen horiek segi daitezzen xedeaz.

ERABILERA ETA TRADIZIOA

1. Azkueren hiztegian begiratu gero, lehenik herri izen arruntaren adiera ohikoena aurkituko dugu, oro har:

«**Erri** (ANc, Bc, Gc), **herri** (BN, L, S): 1° pueblo, population. = En el sentido de *lugar habitado*, como en el de *gente habitante*, aunque tal vez la segunda acepción no sea más que extensión de la primera. *Ce mot s'emploie autant dans le sens de lieu habité, que dans celui d'habitant; encore est-il probable que la deuxième acception n'est que l'extension de la première*».

Badirudi, hala ere, Azkuek aditzera ematen duen esanahi honetan, behiala *herri* hitza baino gehiago erabili ohi zela *hiri* (*iri, uri...*). Gaur egun gutxi gorabehera «ziudadea» adierazteko darabilgun azken hitz hau, biztanleak zituen lekua izendatzeko erabiltzen zen. Horretan dute jatorria euskal onomastikan hain ohikoak diren (*H)iriarte / Uriarte*, (*H)iribarren / Uribarren*, (*H)iriberri / Uribarri*, (*H)irigoien / Urigoien*, (*H)irigibel / Urioste*, (*H)iriondo / Uriondo* eta antzeko izenek, Euskal Herriko bazter guztietan leku-izen nahiz deitura gisa aurki daitezkeenak.

2. Esanahi orokor hau ez ezik, osagai honek nekazaritza giroari lotutako adiera ere badu, nekazaritza-produktuen izenei loturik, berauek hazten diren lurrak izendatzeko hedadura zabaleko baliabidea izanik:

Arerri (AN ap. A ← Aq) «tierra sembrada de maíz, *arerría*; de lino *ligerria*, y así de lo demás (AN)» (*Orotariko Euskal Hiztegia*, Arakistainek Larramendiren hiztegiari eginiko gehigarritik Azkue jaketako hitza). Eta linerri liherri (Sc ap. A; Chaho), liguerri (Sal ap. A), ligerri (AN-araq ap. A: Aq 595 (AN)). «Linar, tierra sembrada de lino» A. *Nesak beretzat digu landu lierria*. Or Eus 101. (*Orotariko Euskal Hiztegia*, Azkuez gainera, Xaho eta Arakistain aipaturik eta Orixeren adibideaz homiturik).

Aizkolerri (Artzibar, Esteribar, Erroibar, Itzagaondoa, Urraulbeiti), Alorrrietako bidea (Ultzama), Artoerri (Erroibar, Esteribar), Artoerria (Esteribar), Artoerribizkar (Esteribar), Artoerrixar (Esteribar), Artoerrixiki (Lizoainibar), Maizerri (Leotz, Lizoainibar, Galar, Ibargoiti), Patataerrixoko (Erroibar), Pinadierrri (Esteribar), Tipulerri (Itzagaondoa, Ezkabarte, Esteribar), Tipulerria (Bidankoze)... (*Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, Iruñea).

[...] baberrri «babendako alorra», txitxirrierrri, oloerri, lanterri (Orotz-Betelu, 384. or.), Oloerria, zalké-ria, gariérria, garagaerria, eruerria (1) (?), babérria, ilarerria (Iriberrri Aezkoa, 384. or.) (*Erikizundi irukoitza*, Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984).

Arambazaerri (sic. Arabako Mendizabal, 1710), Sarecherriaga (Gorbeia) (López de Guereñu Galarraga, Gerardo. *Toponimia alavesa*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989).

Oterri (Aramaio, 7 lib. 97. or., 150. zk.) (González Salazar, José Antonio. *Cuadernos de toponimia alavesa*, 8. liburukia. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1985-1998).

Azkuék ere jaso zuen osagaiaren adiera hau, baina, segur aski akatsez, Erronkariko euskalkiari mugaturik agertzen da haren hitzegian:

«-**Erri** [...] 2° (R), sufijo que indica un campo sembrado, *suffixe qui dénote un champ ensemencé*. **GA-RIERRI**, campo sembrado de trigo: *emblavure, champ ensemencé en blé*. **OLOERRI**, campo sembrado de avena, *champ semé d'avoine*. = Tal vez estas palabras más bien que derivadas sean compuestas, y **ERRI** más bien que un sufijo puede que sea nombre. *Ces mots sont peut-être plutôt des composés que des dérivés, et **ERRI** est peut-être un nom plutôt qu'un suffixe*».

3. Hala ere, *-erri* osagaia nekazaritza-produktuak ez diren beste izen batzuekin ere aurki dezakegu, esanahi aldetik antzeko balioa duen arren:

Enkargaerri (Olaibar), Erbillerri (2) (Arruazu), Erroierri (Oitz), Kostalerrri (Anue), Landaerribelz (sic. Artzibar), Landerri (Puiu), Larerrri (Oitz), Leierri (Oltza), Ospelerrri (Esteribar), Sugerria (Espartiza Zaraitzu), Zabalerri (Untzitibar)... (*Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, Iruñea).

Cindunerri (Zekuiano, 1849), Janerri (Uribarri Nagusia, 1849), Malaperri eta Malaperriburu (Birgaragoien), Malferrria (Arkaia, 1706), Malperri (Erretana, 1829), Martinerrri (Izki), Menderrria (Lagran, 1725), Unimaterri (Marasuri), Uquerria (Lezama, 1625) (López de Guereñu Galarraga, Gerardo. *Toponimia alavesa*. Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989).

Modu berean, Zaraitzu aldean eta Aezkoako Abaurregainean Pardixerria hitza jaso dute Patxi Salaberrik (*Fontes Linguae Vasconiae* (3) 53, 1989, 55-59. orr.) eta Koldo Artolak («Zaraitzueara aztertzekeo ekarpen berriak». (7 -Orontze), *FLV* 97, 2004, 403. or., «Pardixerria») Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Irunberriarainoko aldea izendatzeko, bertakoei *pardixak* esaten zaien bitartean (4). Esanahia Kokoerria izenak (eta bertakoei *kokoak* deitzea) duen berbera da, nabarmen despektibo (Olló: *Kokoak* «los extranjeros». *Erikizundi irukoitza*. Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 382. or.) (5).

4. Badirudi *-erri* osagaia adiera hau oraintsu arte, gaur den egunean baino hedatuagoa egon zela, zeren hala irakur baitzeko Jesús Basáñezek *Lejona, anteiglesia vizcaína* lanean:

«[...] en las primeras elecciones en que tomamos parte para elegir diputados provinciales (septiembre de 1880), Lejona quedó dividida en dos distritos electorales: "Marinerri" (o pueblo de la ribera) que comprendía los barrios de Artaza, Ondiz, Udondo, Aqueche y Lamiaco, y "Baserri" (o pueblo de la montaña), integrado por las demás entidades de población» (Basáñez Arrese, Jesús. *Lejona, anteiglesia vizcaína*. La Editorial Vizcaína, Bilbo, 1971, 275. or.).

(1) *Orotariko Euskal Hiztegia*-k (aurrerantzean OEH) dakarren gisan, *eru* «gíron, yero» da gaztelaniaz.

(2) OEHk eta Azkuék biltzen dutenez, Nafarroa Garaiko zenbait hizkeratan *erbil* hitza nekazaritza-tresna jakin baten izena da, zehazki, lur-mokorrak hausteko erabiltzen zen mailu antzekoa. Azkuék izen honetatik eratorritako *erbildu* aditza ere badaukar. Herialde bereko beste zenbait tokitan, ordea, zura lantzeko tresna bat izendatzen du, gubiaren antzekoa.

(3) Aurrerantzean *FLV*.

(4) Jon Etxaidek bildutako toponimo batzuen zerrendan, *Urraulgoiti* (Urraul Alto) izeneko ibarri Pardix-erria esan ohi zitzaiola agertzen da («Uri eta toki-izen batzuen euskal-izendegia, orain arte bildutakoen berri» *Egan*. Donostia, 1961. II. zenb., 223. or.), nahiz, segur aski, oker jasotako txistukariak agertzen den.

(5) Jose Maria Satrustegik ere idatzi du honetaz («A propósito del préstamo lexical «kokoak»» *FLV*, 53, 1989, 61-74. orr., eta «Proceso tribal», in *Antropología y lengua*, Iruñea, 1989, 77. or. eta hurr.). *Erikizundi irukoitzak* «los extranjeros» itzulpena ematen duen arren, berberaren ondoan «besteak» bezala ulertu behar da hitz hori, antropologiaren ikuspegitik. Adiera hau berau duke Txomin Peillen euskaltzaindik emandako *Manexerria* izenak (aboz 2005/01/27ko Euskaltzaindiaren hilero bilkuran), zuberotarek Nafarroa Beherea izendatzeko erabiltzen dutena.

Hizkuntzak eskaintzen duen eta baliabide aberatsa den erabilera arrunt honen ondorio, «Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkarte» delakoak bere izen zahar honen ordez «Durangerriko Adiskideen Gerediaga Elkarte» hartu du:

«Se ha sustituido el término administrativo de una época, como era el de merindad, por la denominación Durangerria, que refleja más fidedignamente el nombre original de nuestra comarca que fue el de “Tierra de Durango”» (Elkarteak bidalitako jakinarazpena, 2004/07/07).

5. Aipa litezkeen adibideen artean, badaude eskualde eta udalerriak izendatzeko erabili diren beste zenbait izen propio, besteak beste, Azkuek aipatzen dituen honako hauek:

«**Beterri** (G, Ag. Eracus. 180-25), pueblo de abajo, parte baja de Guipuzkoa: *pays bas, la partie basse du Guipuzcoa*».

«**Goiherri** (BN, L, S), **goierri** (AN, B, G), países altos: *hauteurs, pays hauts, régions hautes*».

«**Txorierrri** (B...), cierta comarca de Bizcaya no bien demarcada, que comprende unos catorce pueblos, como Zamudio, Derio, Asua, Sondika, etc.; lit.: país de pájaros: *certaine contrée de la Biscaye assez mal délimitée, qui comprend environ quatorze villages, tels que Zamudio, Derio, Asua, Sondika, etc.; lit.: pays d'oiseaux*».

Jakina den bezala, Azkuek adierazi ez arren, lehenbiziko izenek, eskualdeak ere izendatzen dituzte. Azken adiera honetan, ez dugu ahaztu behar Mikel Zarate zenak idatzitako lan ezagunaren titulua: *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri-Gran Bilbao* (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1976). Era berean, Miguel de Unamunok aipatzen du toponimo hau:

«**Chorierrri**, la inmensa calma de la aldea, tierra de pájaros, la tierra de promisión, el campo de los chimbos y chimberos...» (6)

Adiera honetan, arrunki erabiltzen dira zenbait toponimo historiko **Estellerria** (7) (eskualdea), **Deierrri** (udala eta ibarra), **Goñerri(a)** (udala eta ibarra), **Iruñerria** (eskualdea) eta halakoak, **Euskal Herria** bera ere ahaztu gabe, toponimia nagusian *-erri* osagaia tradiziozkoa dela argi eta garbi erakusten dutenak.

6. Azken urte hauetan bide berbera segitu da modu honetako zenbait toponimo eratzeko, hala nola **Enkarterri(ak)**, **Lizarrerri** (Mitxelena, Koldo: *Palabras y textos*, EHU, Gasteiz, 1987) **Lizarrerria** (*Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernu, Iruñea, 1990, 236. or.), **Sakanerri** (Sartrategi, Jose Mari, *Sakanerri barrena, historia, herri jakintza eta ohiturak*, Nafarroako Gobernu, 1999), **Tafallerria**, **Zangozerria** (8)...
7. Idazleek ere erabili dituzte *-erri(a)* osagaia duten izenak. Hona hemen lekuko horien zenbait adibide:

«Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euskal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizkayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan» (Agerre, Pedro «Axular»: *Gero*, [Bordele, 1634] Euskaltzaindia (argitalpen faksimila), Bilbo, 1998, 17. or.).

«**Tolos-errian**, **Beterrin**, **Goierrin**, zoko guzietan arto ta baba ta gari txeatu zetunan» (Ormaetxea, Nicolás «Orixe»: *Quito'n arrebarekin*. Klasikoak 20, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 1987, 74. or.).

«Gaur itxasaldean, biar legorraldean; orain **beterrian**, urrengoan **goierrin**; gelditu ere gabe zebillen beti aruntza ta onuntza, atzealdetik bere kantuekin poza ta alaia ixuriz» (Agerre, Tomas «Barrenoro»: *Uztaro*, Editorial Vasca, Bilbo [1937], 1950, 202. or.).

Ikusi denez, deklinabidea ezartzean bi modu desberdin (*-erri* eta *-erria*), eta biok aldi berean aurkitzen direla, esan daiteke.

Kasu batean *-erri* osagaia era honetan, mugagabez erabiltzen da eta deklinabidea ere mugatzailerik gabe ezarri ohi da:

«Bada, orain urte batzuben dirala, atera ziran **Goyerrin** etxetik bi apaiz, ta jun ziran ibilli bidez lkazte-gietako onduan dagon Aladabako [sic] etxadi edo barriyo aldera» (Soroa, Marcelino: *Baratzan*, Auzopoa liburutegia, Donostia [1886], 1962, 46. or.).

(6) Unamuno Jugo, Miguel, «Chimbos y chimberos», *La Vasconia*, 1917ko urria, 865. zk. Geroago, 1902an, *De mi país* liburuan berrargitaratua.

(7) *Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernu, Iruñea, 1990, 236. or. Nafarroako Orkoiaren herria dokumentatzen da *Estellerri bidea* 1864an, *Nafarroako toponimia eta mapagintza*, 58-G liburukia, Nafarroako Gobernu, 1999, 150. or.

(8) Onomastika batzordeak Nafarroako Gobernuarentzat prestatutako proposamena.

Eta beste zenbait kasutan, eutsitako osagai hori mugaturik ageri da:

«Esan daiteke noski ez zela atertu hain oinarritzko dugun Bilboren erdalduntzea aldi horretan barrena, inguruan, Iruñerrian bezalaxe, tinkoago irauten zuelarik euskarak» (Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak: Hizkuntzalaritza*; 1, Klasikoak 21-29, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 54. or.).

«Legazpi ta Urdanetak beren Goierria, Okendok ta Elkanok aldiz Kosterria, itxasoz daramate euskal-Edestia» (Mitxelena, Salvatore: *Arantzazu, euskal-sinismenaren poema*, Ed. Aránzazu, Oñati, 1949, 232. or.).

«Ustea dugu, bestalde, hizkuntzaren aldetik eten, banaketa edo konbergentzia eremu garden gardenik ez den gurea bezalako lurraldeetan –Eguesibar, Izabeibar, Iruñerria, Oltza, Ollibar, Goñerria, Gesalatz inguruaz dihardugu–», «Andiaz harat Goñerria dago eta berehala Gesalatz, Estellerrian» (Camino, Iñaki, «Goñerriko hizkera (I)»; *Anuario del Seminario de Filología Vasca*, 1999, XXXIII-1, 14. eta 15. orr.).

Leku-izen batzuetan, mugatzaile pluralaz lagunduak aurkitu ditugu, paradigma plural arruntarekin deklinaturik:

«Bañan orain Goierrietako necazariac sagardoaren valio andiaz (noizbaiten ere bearda) oarqueturic, equin zaiozca berriró sagastiac ifinteari» (Izueta, Juan Ignacio: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Ignacio Ramón Baroja, Donostia, 1847, 142. or.).

«Urrestietako Batzarretxea eta Enkarterrien museoa. Batzarretxea Bizkaiko monumentu historikorik garrantzitsuenetakoa da, eta Enkarterrietako monumentu nagusia». (Bizkaiko Foru Aldundia, Nekazaritza Saila, *Fitxak*).

«Enkarterrietako bizimoduan sustraituriko kontaerak: hemengo usadio-ekandu, pertsonai-eredu, bizi-modu, pensamolde eta sentierak isladatzen dabezan ipuinak; erdaraz idatzirik egonagaitik, euskal usain gozagarria darien gertakari bilbatuak». (Arejita, Adolfo: *Gordexola bailara saria*, VIII. Ipuin lehiaketa, 6, 1997, hitzaurrea).

«Biaromanean, argiarekin batean, berri txarra ere edatu zan errian, Bortz Errietan, Nabarran eta Gipuzkoan» («Don Javier il zaigu»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1969, 45-46, azarora-abendua, 3. or.).

«Gure Bortz Herrietako euskera erabiltzen goaz» (Antton. «Euskal giro berri bat Lesaca ta Bera'n»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1972, 73, Iruñea, 7. or.) (9).

Hala ere, leku-kasu batzuetan deklinatzen denean, beste determinatzaile edo izenondoren bat daramanean, edo postposizio batez hornituta doanean, ez da argi bereizten izenarekin mugatzailea doan ala ez, bi formek itxura bera hartzen dutelako:

«Modu onetan salduzen dan sagardoaren balioa, orain diru asco eguiten daben demporan cerchobait izan arren, ugaritasunac mercatzera dacarreanean, utsera biurtzen da Goierrico sagar-jabe-etara iritsi orduco» (Izueta, Juan Ignacio: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Ignacio Ramón Baroja, Donostia, 1847, 142-143. orr.).

«Maatsa Kokoak aipa orduko, albotik da Zimurrio: udazken eder Beterri artan igarora dala dio» (Ormaetxea, Nicolás «Orixe»: *Euskaldunak poema: XV kantuetan*, Itxaropena, Zarautz [1934], 1950, 381. or.).

«Maite ditu eguzkiak gure mendiok, eta sortaldetik jagiten danean, eurentzat izaten da bere lenengo argi errafiunaren txera epela, ta illunabarrean, beterri guztiak, ondamutsun antzera, añutsu gelditzen di-ran orduan, mendi tonorrentzat izan oi da eguzkiaren azken agur biguna» (Agirre, Domingo: *Kresala*, Durango, 1906, 213. or.).

«Bere hirikoen orde bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu, eta Gipuzkoako euskalki hori berak begiz joa da, Beterri aldera» (Mitxelena, Koldo: *Euskal idazlan guztiak: Literaturaz* 2, Klasikoak 21-29, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1988, 97. or.).

(9) Eskualde honek duen beste izendapena, *Bortzirriak*, gaur den egunean, behar bada, hedatuago dagoenak, badu oinarri bere:

«aquel dicho en vascuense, aparentemente definitivo, que la gente ponía en boca sin saberse desde cuando: LESAKAL-CO BORZIRIAC (Las cinco villas de Lesaca) [...]. Claro que, Lesaca dejaría reducida esta frase popular, a BORZIRIAC o a BORZIRI NAFARRACOAE» (Idoate, Florencio: *Rincones de la historia de Navarra*, III. liburukia, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1979, 261-262. orr.).

«Bortz hiriko ama baten deia» (Satrustegi, Jose Maria: *Euskal izenak*, «Amagoia»: *Príncipe de Viana*, euskarazko gehigarria, 1967, 67, Iruñea, 6. or.).

**HONEN GUZTIAREN ONDORIOZ, HAU DA -ERRI(A) OSAGAIAREN ERABILERAZ
EUSKALTZAINDIAREN ARAUA:**

1. Toponimo nagusien zerrenda

1.1. Mugagabea:

- Baserri:** Berango eta Getxoko auzo ofizialak; Ezkabarteko alderdia (10).
- Beierrri:** Esteribar eta Araizko alderdiak (11).
- Deierri:** Nafarroako ibarra eta udalerria.
- Durangerrri:** Bizkaiko eskualdea izendatzeko neotonimoa, analogiaz sortua.
- Enkarterri:** Bizkaiko eskualdea izendatzeko neotonimoa.
- Ergoienerrri** (12): Ergoiena izendatzeko, Arruazu aldean erabilitako era erredundantea.
- Goierri:** Gipuzkoako eskualdea; Bizkaiko Aulesti, BARRIKA, Erandio, Garai eta Zaldibarko auzo ofizialak; Nafarroako Esteribarko Eugi, Iragi eta Urtsun aldeak; Araizko Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi aldeak (13).
- Goñerri:** Nafarroako ibarra eta udalerria (14), noizbait artikulua ere erabili dena.
- Lañerri:** Ezkabarteko Arre, Oriain eta Soraren alderdia, eremu zelaiko auzoak alegia, *Baserri* izeneko inguruari kontrajarria.
- Txorierri:** Bizkaiko eskualdea.

1.2. Mugatu singularra (-a):

- Arnotxerria:** Foruko auzo ofiziala (15).
- Asterria:** Zeanuriko auzo ofiziala.
- Estellerria:** Nafarroako eskualdea.
- Goierria:** Bolibar-Ziortzako auzo ofiziala.
- Iruñerria:** Nafarroako eskualdea, noizbait artikulurik gabe ere erabili dena (16).
- Kokoerria:** *Iruñerria*-ren goitzen peioratiboa.
- Lizarerria:** *Estellerria*-ren neotonimoa.
- Pardixerria:** Nafarroako eskualdea, gehienbat Urraul biak hartzen dituena.
- Tafallerria:** Neotonimoa.
- Toloserrria:** Gipuzkoako eskualdea, *Tolosaldea*-ren kidea.
- Zangozerrria:** Neotonimoa.

1.3. Mugatu plurala (-ak):

- Bortzerriak:** Nafarroako ibarra, *Bortzirriak* izenaren kidea.

(10) «[...] top. *Lañerri*, nombre de la parte baja del valle de Ezcabarte (Navarra) contrapuesta a la alta o *Baserri*» (Mixelena Elissalt, Koldo: *Fonética histórica vasca*, Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, Donostia [1961], 1985, 200-201. orr.). Oraindik bizirik diraute ibar honetan bi izen hauek.

(11) *Beierrri* izena duen alderdiak *Araitz* ibarraren beheko alde hartzen du: *Arribe, Atallu...* Kontrara, *Goierri* izenekoak Aralarako mendien maldetan daudenak biltzen ditu, hau da, *Azkarate, Gaintza, Intza* eta *Uztegi* (*Nafarroako herri izendegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1990, 102-103. orr.).

(12) Ahoz *Ergoierri* bildua.

(13) Azken haran honetako *Beierrri* izenari kontrajarria.

(14) Urritzola Arakilgo Bautista Etxarren informatzaile euskaldunarengandik bi moduetara jaso zen izen hau, artikulua eta artikulurik gabe.

(15) Ondo dokumentatzen den *Arnotxa* izeneko baserriaren ingurua izendatzen du toponimo honek.

(16) *Iruñ-erri* «Cuenca de Pamplona» (Olló, 382. or.) (*Eričkizundi Irukoitza*, Iker-3, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984). Hala ere, ez da gauza segurua egiazki mugagabe jaso izana, horretarako Eusebio Etxalarrek gerra aurrean eginiko inkestan, Franzisko Ollakarizketa informatzaileak deklainatuta nola erabiltzen zuen aztertu beharko bailitzateke.

2. Deklinabide paradigmak

	Mugagabea	Mugatu singularra (-a)	Mugatu plurala (-ak) (17)
NOR	Goierri	Iruñerria	Bortzerriak
NORK	Goierrik	Iruñerriak	Bortzerriek
NORI	Goierriari	Iruñerriari	Bortzerriei
NOREN	Goierriren	Iruñerriaren	Bortzerrien
NOREKIN	Goierriarekin	Iruñerriarekin	Bortzerriekin
NORENGATIK	Goierriengatik	Iruñerria(ren)gatik	Bortzerriengatik
NORENTZAT NORENDAKO	Goierrientzat Goierriendako	Iruñerriarentzat Iruñerriendako	Bortzerrientzat Bortzerriendako
NORTAZ	Goierriaz	Iruñerriaz	Bortzerriez
NON	Goierriin	Iruñerrian	Bortzerrietan
NONGO	Goierriko	Iruñerriko	Bortzerrietako
NONDIK	Goierritik	Iruñerritik	Bortzerrietatik Bortzerrietarik
NORA(T)	Goierri(a)r(a)	Iruñerri(a)r(a)	Bortzerrietara(t)
NORAINO	Goierriaraino	Iruñerriaraino	Bortzerrietaraino
NORANTZ	Goierriarantz	Iruñerriarantz	Bortzerrietarantz
NORAKO	Goierriarako	Iruñerriarako	Bortzerrietarako
Partitiboa	Goierriarik	Iruñerriarik	Bortzerriarik
Prolatiboa	Goierritzat Goierritako	Iruñerritzat Iruñerritako	Bortzerritzat Bortzerritako

(Euskaltzaindiak, 2005eko apirilaren 22an, Donostian, onartua.)

(17) Leku honek jasotzen dituen *Bortziariak* eta *Bortzerriak* izendapenetan *hiri / herri* bikoiztasuna ikus daiteke, gaztelaniazko «villa» eta «tierra»-ren pareko. Adiera horiek kausitzen ditugu Idoatek emandako datuen artean: «Carta escrita en 1576 por el virrey Sancho de Leiva, a LAS CINCO VILLAS DE LESACA [...]. Observamos en los documentos de hacia 1430 y aun siguientes, que no se hacía distinción especial, sino que se habla de la «tierra de Lesaca y Vera»» (Idoate, Florencio: *Rincones de la historia de Navarra*, Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea, 1979, 260. or.).